

EUSKADIKO PREBENTZIO ZERBITZU PROPIOEN OINARRIZKO OSASUN UNITATEEI BURUZKO MEMORIA

2006KO EBALUAZIOAREN
TXOSTENA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantzza Saila



GOBIERNO VASCO

Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social

Argitaraldia:	2008ko martxo
Ale-kopurua:	500 ale
©	Osalan. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna
Internet:	www.osalan.net
Argitaratzailea:	Osalan. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita Bidea, z/g. 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Egileak:	Teresa Saez de Ocariz Diaz de Otazu Gregorio Caro Ruesgas M ^a Victoria Morente Gaita
Babes administratiboa:	Javier Urrutikoetxea Landeta Magdalena Cueva Alonso Pedro Agudo Villarroel Rosa M. Rego Vidal
Fotokonposaketa:	Fotomecánica GARBER General Concha, 25 - 4 ^a planta 48010 Bilbao
Inprimaketa:	GERTU Inprimategia Tel. 943 783 309 Oñati
ISSN:	1696-6279
L.G.:	VI-352/1998

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1. HITZAURREA	7
2. URTEKO ESTADISTIKA-LABURPENEN AZTERKETA	7
2.1. OOUen jarduera	7
2.2. OOUak dituzten enpresen istripu-tasa	8
2.3. Bajak eragin dituzten laneko istripuak.....	8
2.4. OOUak dituzten enpresetan izandako lanbide-gaixotasunak	13
2.5. Osasun-adierazleak, jarduera ekonomikoaren arabera.....	13
3. LAN-BALDINTZEN FITXEN AZTERKETA.....	20
3.1. Materiala eta metodoak.....	21
3.2. Emaizak	21
3.3. Ingurune fisikoaren faktoreak.....	23
3.4. Zarata.....	24
3.5. Eragile kimiko eta biologikoak.....	25
3.6. Faktore ergonomikoak.....	32
3.7. Emaizen baliozkotasuna	33
I. ERANSKINA	37
II. ERANSKINA.....	45
GRAFIKOAK	51



AURKEZPENA

EAEko Prebentzio Zerbitzu Propioen Oinarrizko Osasun Unitateei buruzko Memoria aurkezten dizuegu, 2006ko ekitaldian zehar horiek egindako jardueren datuen azterketa abiapuntu harturik egindakoa, hain zuzen.

Jakin dakigunez eta aurreko aurkezpenetan azaldu legez, Prebentzio Zerbitzuen Gutxieneko Datu Multzoa (GDM) egiten jarraitzen da. Aipatu GDM Prebentzio Zerbitzuen Oinarrizko Osasun Unitateek etorkizunean administrazioan aurkeztu beharko duten dokumentazioa izango da eta, hortaz, egungo informazioa ordeztuko du. Azterketa hau egiteko bere garaian gure Autonomia Erkidegoan onetsitako dokumentuak ditugu gaur egun (1992ko abenduaren 9ko Agindua, Osasun Kontseiluarena, 92.12.29ko 252 zk.ko EHAAn argitaratua, akats-zuzenketa 93.2.2ko 21 zk.ko EHAAn).

Informazio honek nolabait gizarteak prebentzioaren kontzientzia hartzea ekarriko duela espero dugu, zeregin hauetan jarduten duten guztien sentsibilitatearen bidez, eta horrek eragina izan beharko du ezberhar-tasen murrizketan eta lan-baldintzen hobekuntzan.

Azkenik, emandako laguntza eskertu nahi diet aipatu Unitateetan diharduten pertsoneri, euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen memoria hau argitaratzea.

Ignacio Murguía Mañas
OSALANGO ZUZENDARI NAGUSIA



1. HITZAURREA

2006. urtean Oinarrizko Osasun Unitateek (OOU) igorritako 65 txostenetan oinarritutakoa da ebaluazioaren txosten hau. Horiek, bermatutako Berezko Prebentzio Zerbitzuei dagozkie, hau da, ARABAKO 18, GIPUZKOAKO 15 eta BIZKAIKO 32. 2006 urtean, OOUen tutoretzapean dagoen langile kopurua 34.880 izan da, horietako 26296 (%75,39) gizonezkoak ziren eta 8.584 (%32,61) emakumezkoak ziren.

Egindako lanordu kopurua 54.157.158 izan da; hortaz, langile bakoitzeko urteko batz bestekoa 1.552,67 lanordu da.

2. URTEKO ESTADISTIKA-LABURPENEN AZTERKETA

Ondoren Urteko Estatistika-Laburpenetan jasotako datuak erakutsiko dizkizugu, 2006an EAEko OOUek bidalitako 65 memoriei dagozkionak

2.1. OOU-en Jarduera

I. taulan jarduera hauek jaso dira: Osasun Azterketak, Kontsultak eta Administrazio Egintzak. Bertan ikusten denez, osasun azterketek %97,05 osatzen dute. Aldizkako azterketa orokorre dagokienez, 100 langiletik 38,17 egin zaie, honela, ia-ia berezien kopurura (%45,65) heldu delarik. Aurreko urtean legez aurten ere, azterketa bereziak aldizkakoak baino ugariagoak izan dira, eta 2006. honetan, gainera, kopuru bien arteko aldea handiagoa da.

Medikuari edo OLT/EUDari eginiko kontsulten kopurua langile bakoitzeko unitatea askogatik gainditzen du eta antzekoak dira hiru Lurraldeetan.

Aipatutako urteko administrazio-jardueran 100 langileko 66 egintza egiten dira.

OOU-en JARDUERA	KOPURUA	100 LANGILEKO RATIOA
Osasun Azterketak	33.852	97,05
Aldez aurrekoak	2.637	7,56
Lanera itzultzekoak	1.979	5,67
Aldizkako orokorrak	13.315	38,17
Aldizkako berariazkoak	15.921	45,65
Kontsultak		
Medikua	100.171	287,19
Erizaintza	78.623	225,41
Administrazio-egintzak	23.027	66,02

I. taula: Oinarrizko Osasun Unitateen jarduera-adierazleak, osasun azterketak, kontsultak eta administrazio-egintzak, kopuru orokorra eta 100 langileko ratioa.



2.2. Oou-Ak Ditzuten Enpreetan Izandako Istripu Tasa

Lan Istripuek Eragindako Ezintasuna

Guztira 2.440 istripu izan dira; horietako 605ek ezintasun-mailaren bat eragin zuten.

II. taulan OOUek adierazitako istripuen datuak erakusten dira. Langileak sexuaren arabera banatu dira. Ikusi dugu aurten adierazitako istripu kopurua gizonezkoei dagokienez 100 langileko 17,84koa dela eta emakumezkoei dagokienez, berriz, 100 langileko 9,94koa. Aurtengoan istripu hilgarri bat gertatu da, ez ordea balioezintasun handia ondorioztatu duenik.

Aurreko urteetako datuekin alderatuz, ezbehar-tasak, hala gizonezkoengan, nola emakumezkoengan, behera egin duela ikusten da. Ez da horrela gertatu istripu hilgarriekin, 2005. urtean horrelakorik ez zelako egon, eta aurtengoan, berriz, bat gertatu da..

EZINTASUN MAILA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	Kop.	100 x tasa	Kop.	100 x tasa
Bajarik gabe	3.653	13,90	579	6,75
E. Iragankorra	1.036	3,94	273	3,18
E. Iraunkorra				
Partziala	0	0,00	0	0,00
Orotara	1	0,00	1	0,01
Absolutua	0	0,00	0	0,00
Baliaezintasun Handia	0	0,00	0	0,00
Heriozkoa	1	0,00	0	0,00
Istripuak guztira	4.691	17,84	853	9,94

II. taula: Istripuak lanerako eragindako ezintasun maila, sexuaren arabera. Ehun langileko maiztasuna eta tasa behatu da.

2.3. Baja eragindako lan-istripuak

Langilearen adina

III. taulak erakusten duenez, aurreko urteetan bezalaxe, arriskurik handiena, 25 urtez beherako langileen artean dago. Gazteen artean ikusten den intzidentzia handiago honen arrazoia faktore askoren arabera izan liteke, hala nola: eskarmentu gutxi izatea, aldi baterako kontratuak, informazio-falta, prebentzio-prestakuntzarik ez izatea, besteak beste.



ADINA	LANGILE KOP.	ISTRIPU KOP.	100EKO TASA
16-20	86	6	6,98
21-25	1.360	69	5,07
26-30	3.959	169	4,27
31-35	5.204	208	4,00
36-40	5.206	172	3,30
41-45	4.811	178	3,70
46-50	4.761	196	4,12
51-55	4.781	190	3,97
56-60	3.808	109	2,86
61-65	889	15	1,69
66 edo gehi	15	0	0,00

III. taula: Datu guztiak bete dituzten 65 enpresetan baja eragindako langileen istripuak, adinaren arabera. Tarte bakoitzeko istripu eta langile kopurua adinaren arabera.



ISTRIPUAREN ORDUA	Ordu naturala	%
Ordu naturala		
1 ^a	29	2,21
2 ^a	22	1,68
3 ^a	28	2,13
4 ^a	22	1,68
5 ^a	20	1,52
6 ^a	44	3,35
7 ^a	53	4,04
8 ^a	71	5,41
9 ^a	114	8,69
10 ^a	106	8,08
11 ^a	118	8,99
12 ^a	91	6,94
13 ^a	65	4,95
14 ^a	54	4,12
15 ^a	71	5,41
16 ^a	65	4,95
17 ^a	78	5,95
18 ^a	50	3,81
19 ^a	35	2,67
20 ^a	48	3,66
21 ^a	41	3,13
22 ^a	30	2,29
23 ^a	44	3,35
24 ^a	13	0,99
Lanordua		
1 ^a	189	14,41
2 ^a	221	16,84
3 ^a	212	16,16
4 ^a	172	13,11
5 ^a	162	12,35
6 ^a	137	10,44
7 ^a	107	8,15
8 ^a	98	7,47
8.a eta gero	14	1,07

IV. taula: Istripua izandako ordua ordutegi naturalaren eta lan-ordutegiaren arabera. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresei buruzko datuak.



Istripua izandako ordua

IV. taulak baja eragindako istripuen intzidentzia erakusten du, gertatutako ordu naturalaren arabera. Intzidentzia, 2005.ean bezalaxe, 9. eta 11. orduan handiagoa da .

Lanorduaren arabera aztertzerakoan, laneko 2. eta 3. orduaren artean istripuen intzidentzia handiagoa dela ikusi dugu. Nolanahi ere, horrela ezin dugu jakin zein den arrisku handieneko lanordua, ez baitakigu zenbat langile zeuden ordu bakoitzean.

Asteko egunari dagokionez, aurreko urteetan bezalaxe, intzidentzia handiagoa ematen da astelehen eta asteartetan (V. taula).

ASTEKO EGUNA	Istripu kop.	%
Astelehena	258	19,66
Asteartea	256	19,51
Asteazkena	245	18,67
Osteguna:	232	17,68
Ostirala	189	14,41
Larunbata	70	5,34
Igandea	62	4,73

V. taula: Baja eragindako istripuak astegunen arabera. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresei buruzko datuak.

Istripua gertatutako hilabeteari dagokionez, berriz (VI. taula), urtarrilean, eta ondoren, maiatzean eta otsailean intzidentzia handiagoa dela ikusten da; gainerako hilabeteetan, abuztuan salbu, intzidentzia antzekoa da.

Edonola ere, istripu-arrisku handiena duen hilabeterik badagoen jakiteko, hilabete bakoitzean lan egingandako orduen arabera doitu beharko litzateke azterketa hau.

ISTRIPUAREN HILABETEA	Istripu kop.	%
Urtarrila	130	9,91
Otsaila	115	8,77
Martxoa	122	9,30
Apirila	113	8,61
Maiatza	124	9,45
Ekaina	112	8,54
Uztaila	108	8,23
Abuztua	73	5,56
Iraila	112	8,54
Urria	111	8,46
Azaroa	114	8,69
Abendua	78	5,94

VI. taula: Baja eragindako istripuak horiek izandako hilabetearen arabera. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresei buruzko datuak.



Istripua izandako modua

VII. taulan, istripuak gertatzeko arrazoi ohikoenak jaso dira. Aurreko urteetan bezala, aurten ere, baja eragindako istripuen %36 esfortzu handiegiak egiteagatik izan ziren. Ondoren, langileak maila berean erortzeagatik sortutakoak, objektu edo tresnekin hartutako kolpeak eta makina, traktore edo ibilgailuak iraultzearen ondorioz harrapatuta geratzea daude.

ISTRIPUA IZANDAKO MODUA	Istripu kop.	%
Esfortzu handiegiak eginda	474	36,13
Objektu batek/artean harrapatuta	117	8,92
Objektuekin edo tresnekin hartutako kolpeak	110	8,38
Maila berera jausita	102	7,77
Objektuak zapaltzea	98	7,47
Mugitzen ez diren objektuen kontra talka egitea	64	4,88
Beheko mailara jausita	63	4,80
Objektu mugikorren kontra talka egitea	62	4,73
Manipulatzeko ari diren objektuak jausita	42	3,20
Pusketak edo partikulak jaurtitzea	42	3,20
Besterik	138	10,52

VII. taula: Baja eragindako istripuak eta istripua izandako modua. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresei buruzko datuak.

Lesioen deskribapena

Istripuek eragindako bajen %42,00 bihurrituen, zaintiratuaren eta distentsioen ondoriozkoak izan dira; maiz haien atzetik bestelako zauriak, zafardak eta zapalketak ditugu (VIII. Taula).

LESIOEN DESKRIBAPENA	Istripu kop.	%
Bihurrituak, zaintiratuak eta distentsioak	551	42,00
Beste zauri batzuk	159	12,12
Kontusioak eta zanpatzeak	148	11,28
Lunbalgiak	136	10,36
Hausturak	122	9,30
Azaleko traumatismoak	89	6,78
Luxazioak	21	1,60
Erredurak	19	1,45
Gorputz arrotza begietan	14	1,07
Lesio ugariak	14	1,07
Bihotzekoak, burmuineko isuriak eta bestelako patologia ez-traumatikoak.	11	0,84
Beste batzuk	28	2,13

VIII. taula: Baja eragindako istripuak eta horiek eragindako lesioen deskribapena. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresei buruzko datuak.



Lesionatutako gorputz-atala

II.9. taulan ikus daitekeenez, baidun istripuen %22,41k eragina du eskuetan, eta maizen gertatzen direnak ditugu nabarmen, istripu guztien %60,29k gorputz-adarretan baitu eragina. Datu bat dator aurreko urteetakoekin.

LESIONATUTAKO GORPUTZ ATALA	Istripu kop	%
Eskuak	294	22,41
Goiko gorputz-adarrak (eskuak izan ezik)	186	14,18
Gerrialdea eta sabelaldea	183	13,95
Behoko gorputz-adarrak (oinak izan ezik)	173	13,18
Oinak	149	11,36
Bularraldea, bizkaraldea eta saihsak	128	9,75
Lepoa	70	5,33
Begiak	38	2,90
Lesio anizkoitzak	35	2,67
Besterik	56	4,27

IX. taula: Baja eragindako istripuak eta lesionatutako gorputz-atala. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresei buruzko datuak.

2.4. Oinarrizko osasun unitatea duten enpresetan izandako lanbide-gaixotasunak

2005. urtean legez aurtengo ekitaldian ere Oinarrizko Osasun Unitatea duten enpresetan izandako lanbide-gaixotasunen azterketarik ez da egin, izan ere, OSALANek badu gaixotasun horientzako berariazko proiektu bat, eta proiektu horretan lanbide-gaixotasunen azterketa sakona egiten da. Bestalde, kontuan izan behar da baita ere, enpresek bidalitako memorietan datu hori ez dela osotasunez ematen.

2.5. Ekonomi jardueraren arabera osasun-adierazleak

Laneko ezbehar-tasaren adierazleak

OOUen memorien eredu berrian erabilitako indize desberdinak aztertzeko, Osasun Sailak 1992ko abenduaren 9an emandako Aginduan zehaztutako formulatan oinarritutako kalkuluak egin dira. Izan ere, Agindu horretan OOUen osasun-dokumentuen eredu berriak argitaratu ziren, eta horien kontzeptuak I. eranskinean azaltzen dira.

Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala-EJSN (1993)ren arabera sailkatu da enpresen jarduera, horrelako jarduerak sailkatzen dituzten 10 talde handiak baliatuz. Jarduera-multzo batzuetan enpresa asko zeudenez, banatzea komeni zela ikusi da, eta, ondorioz, 10 talderen ordez, 14 sortu dira, X. taulan ikus daitekeenez. Ez dago 1. taldeko enpresarik (Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza), eta horregatik ez da agertzen ondorengo tauletan.

Informazioa osatzeko, mediana erabili da, erdiko joeraren neurgailu gisa, eta muturreko gehieneko (maximoa) eta gutxieneko (minimoa) balioak ere bai, ikusten diren joeren aldagarritasuna nolakoa den jakiteko eta enpresaren barne-adierazleak gainerakoekin konparatzeko, baita jardueren arteko konparazioak egiteko ere.



JARDUERA TALDEA	CNAE	ENPRESEN JARDUERA
1	011-050	Nekazaritza. Abeltzaintza. Arrantza.
2	101-193	Erauzketa-ind. Ehungintza.
3	201-233	Egurgintza. Papergintza, Arte grafikoak
4	232,241-268	Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa
5	271-275	Metalurgia
6	281-297	Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena
7	300-335	Material elekt. eta elektronikoaren ekoizpena
8	341-372	Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak
9	401 y 410	Ur bil./ban. E. elektrikoaren ekoi/ban.
10	451-455	Eraikuntza
11	501-555	Merkataritza. Ostalaritza
12	601-642	Garraioa
13	651-672-701-804 900-990	Alokairuak. Informatika. Herri Ad. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak.
14	851-853	Osasun-jarduerak

X. taula: Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN (1993)ren arabera sailkatu da enpresen jarduerak.

Maiztasun Orokorraren Indizea

XI. taulan, bitartekoan oinarrituta, istripu-tasa handiena 6. jarduerak-taldeari (Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena) dagokiola ikus daiteke, eta horren ondoren, 5. taldea (Metalurgia) dagoela. Datu hau, aurreko urteetakoekin alderatuz, aldatu egin da.



ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	98,1	86,1	110,0
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	132,2	20,3	323,3
Metalurgia	10	161,8	57,1	267,7
Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena	9	202,6	60,5	1.063,7
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	81,6	43,0	369,9
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	51,3	33,5	69,8
Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.	7	29,8	5,9	44,0
Eraikuntza	1	76,8	76,8	76,8
Merkataritza. Ostalaritza	2	108,1	83,8	132,3
Garraioa	6	61,6	18,7	199,1
Alokairuak. Informatika. Herri Ad. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak.	10	20,6	12,9	55,8
Osasun-jarduerak	3	117,9	70,2	119,6
Orotara	64	80,4	5,9	1.063,7

XI. taula: Maiztasun Orokorraren Indizea (baja eragindakoak eta bajaran gabekoak), enpresa-jardueraren arabera (MOI: lan egindako milioi orduko istripu kop.).

Aurtengoan, ordea, maiztasun orokorreko indizerik txikiena 9. jarduera-taldean (Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.), eta ondoren, 13.ean (Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak.) ikusten da.

Badago istripurik aitortzen ez duten enpresak, ez baja eragindakorik ez baja eragin ez dutenik. Hori baliteke izatea enpresek informazio gutxiago ematen dutelako izatea, eta ez egon ez daudelako.

**Baja Eragindako Lan Istripuen Maiztasun Indizea**

ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	44,7	39,7	49,6
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	29,5	4,0	56,1
Metalurgia	10	33,2	2,1	74,5
Metalezko produktuen eta makinien ekoizpena	9	34,3	8,9	120,2
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	26,6	20,9	86,9
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	15,2	8,6	25,2
Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.	7	9,8	0,0	38,3
Eraikuntza	1	36,4	36,4	36,4
Merkataritza. Ostalaritza	2	44,8	20,3	69,3
Garraioa	6	22,7	4,4	83,0
Alokairuak. Informatika. Herri Ad. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak.	10	10,9	2,9	24,7
Osasun-jarduerak	3	23,9	10,4	52,8
Orotara	64	24,1	0,0	120,2

XII. taula: Baja eragindako istripuen maiztasun indizea, enpresa-jardueraren arabera (BIMI: lan egindako milioi orduko istripu kop.

XII. taulan ikus daiteke aurten arrisku handienak 11. jarduera-taldeko (Merkataritza. Ostalaritza) enpre-setan daudela, eta txikienak, aitzitik eta 2005.eko datuekin bat etorriz, 9. jarduera-taldean (Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.) eta 13.eam (Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak).

Intzidentziaren Indizea

Intzidentziaren indizearen kontzeptua aurrekoaren antzekoa da, eta hau ere bajak eragindako istripuen intzidentzia-tasa bat da. Baina aurrekoa lan egindako orduen guztizko kopuruari zegokion, eta hau, aldiz, langileen guztizkoari dagokio. Horregatik, ez da aurrekoa bezain fidagarria, arriskuan egotea hobeto neur-tzen baita lan egindako denboraren arabera, plantillako langileen arabera baino; izan ere, emaitzak alda ditzaketen egoerak izaten dira, hots, AbEak (Aldi Baterako Ezintasuna), enplegu-erregulazioak, etab.

XIII. taulan ikus daitekeenez, indize altuenak 11. taldeari (Merkataritza. Ostalaritza) dagozkio, ondoren 2.ari (Erauzketa-industriak. Ehungintza), eta azkenik, indize baxuenarekin 13. taldeari (Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak).

Bitartekoan oinarrituta azpimarratu behar da hiru Lurraldeetako indizerik baxuena, aurtengoan, Gipuzkoari dagokiola (I. Eranskina – III. taula).



ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	68,8	58,3	79,2
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	49,1	6,5	82,4
Metalurgia	10	39,9	3,4	64,6
Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena	9	52,6	14,3	181,3
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	44,2	30,6	127,0
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	25,5	14,7	48,7
Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.	7	14,3	0,0	76,9
Eraikuntza	1	55,9	55,9	55,9
Merkataritza. Ostalaritza	2	79,1	36,0	122,2
Garraioa	6	33,0	7,4	120,5
Alokairuak. Informatika. Herri Ad.Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza.Bestelako gizarte-jarduerak.	10	13,8	4,3	39,4
Osasun-jarduerak	4	52,2	17,1	86,5
Orotara	65	38,8	0,0	181,3

XIII. taula: Intzidentzia Indizea enpresa-jardueraren arabera (II: mila langileko baja eragindako istripu kop.).

Larritasun Indizea

Larritasun-indizearik altuena (XIV. taula) 4. taldeari dagokio (Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa), eta ondoren 14. (Osasun-jarduerak) eta 6. taldeari (Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena).

ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	0,60	0,52	0,68
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	0,88	0,35	6,95
Metalurgia	10	0,68	0,28	1,74
Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena	9	0,76	0,15	0,99
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	0,60	0,31	1,80
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	0,26	0,23	0,32
Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.	7	0,55	0,00	3,52
Eraikuntza	1	0,59	0,59	0,59
Merkataritza. Ostalaritza	2	0,27	0,06	0,48
Garraioa	6	0,48	0,14	2,94
Alokairuak. Informatika. Herri Ad.Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza.Bestelako gizarte-jarduerak.	10	0,27	0,01	0,84
Osasun-jarduerak	3	0,77	0,20	1,77
Orotara	64	0,58	0,00	9,06

XIV. taula: Larritasun Indizea enpresa-jardueraren arabera (LI: baja eragindako istripuengatik galdutako lanegun kop. , lan egindako mila orduko).



Larritasun-indizerik altuena, ordea, 8. jarduera-taldeari (Garraio-materialaren ekoizpena. Beste batzuk) dagokio, eta ondoren 11. (Merkataritza. Ostalaritza) eta 13. taldeari (Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak).

Laneko Erikortasunaren Adierazleak

OOUek adierazitako baja eragindako lanbide-gaixotasunen indizeak (AbE) azaltzen dira jarraian, zeinak adierazle gisa erabiltzen baitira, OOUen osasun-agirietan xedatutakoarekin bat etorriz

OOUek Urteko Laburpen Estatistikoan aditzera emandako lanbide-gaixotasunen kopurua 98 izan zen. Horietatik, 6 laneko gaixotasunak dira, 59k baja eragin zuten eta horrek 4.178 lanaldi galtzea eragin zuen.

1º.- Baja Eragindako Lanbide Gaixotasunen Maiztasun Indizea = 0,17

2º.- Batezbesteko Iraupenaren Indizea = 70,81

3º.- Larritasun Indizea = 0,08

Erikortasun arruntaren adierazleak

Baja Eragindako Gaixotasun Arrunten Maiztasun Indizea

Erikortasun arruntaren adierazleek lotura zuzena dute laneko absentismoarekin. Urteko intzidentziaren kopurua baja eragindako gaixotasunen maiztasun-indizearen bidez jakin dezakegu, honek 100 langileko izandako baja-kopurua neurtzen baitu.

ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	49,5	30,1	68,9
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	40,2	25,2	54,2
Metalurgia	10	35,9	19,3	51,3
Metalezko produktuen eta makinaren ekoizpena	9	34,4	0,0	98,1
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	35,4	15,6	73,9
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	47,4	22,2	52,1
Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.	7	1,8	0,0	45,0
Eraikuntza	1	22,4	22,4	22,4
Merkataritza. Ostalaritza	2	56,5	40,0	73,0
Garraioa	6	44,9	14,3	60,7
Alokairuak. Informatika. Herri Ad. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak.	10	47,8	16,9	111,8
Osasun-jarduerak	4	102,9	33,1	112,5
Orotara	65	39,0	0,0	112,5

XV. taula: Baja eragindako gaixotasun arrunten maiztasun indizea enpresa-jardueraren arabera (BGAMI: ehun langileko gaixotasun arruntengatiko baja kop.).

XV. taulan erakusten denez, 2006an ere, aurreko urteetan bezala, absentismorik handiena 14. jardue-
ra-taldean ematen da (Osasun-jarduerak), izan ere, urtean 103 baja izaten baitituzte 100 langileko.

Absentismoaren intzidentzia txikiena, aitzitik, 9. taldeari (Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.) dagokio,
aurtengoan.

Indizearen batz besteko iraupena

Gaixotasun arrunt bakoitzeko bajaren batezbesteko iraupenaren media XVI. taulan adierazi da.
Indizerik altuena 10. taldeko enpresei (Eraikuntza) dagokiela ikusten da, baja bakoitzeko 78 eguneko
baita.

Bestalde, iaz bezalaxe 2006. urtean ere, 8. taldean (Garraio-materialaren ekoizpena. Beste batzuk)
eman da indizerik txikiena, baja bakoitza, batez beste, 18 eguneko baita.

Edozelan ere, aurreko urteetan bezala, Araban izan da indizerik txikiena (I. eranskina – VI. taula).

ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	18,5	17,6	19,3
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	25,3	1,0	50,5
Metalurgia	10	25,0	0,0	63,2
Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena	7	42,6	24,7	191,3
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	28,7	22,3	40,5
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	18,0	8,0	21,6
Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.	4	24,2	8,9	40,2
Eraikuntza	1	78,3	78,3	78,3
Merkataritza. Ostalaritza	2	26,3	25,7	26,9
Garraioa	6	32,3	20,5	44,7
Alokairuak. Informatika. Herri Ad.Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza.Bestelako gizarte-jarduerak.	10	24,6	12,3	114,2
Osasun-jarduerak	4	42,3	27,3	51,0
Orotara	60	26,7	0,0	191,3

XVI. taula: Gaixotasun arrunt bakoitzeko bajaren batezbesteko iraupenaren indizea, enpresa-jardueraren arabera. (BBI: gaixota-
sun arruntagatik galdutako lanegunak zati gaixotasun-baja kop.).

Larritasun Indizea

Gaixotasun arruntagatiko larritasun-indizeak galdutako lanegunak lan egindako orduekin konparatuta
neurtzen dituzenez, indize hau interesgarriagoa da absentismoa orokorrean baloratzeko.



XVII. taulan ikusten da, aurreko urtean bezala, aurten ere, 14. (Osasun-jarduerak) taldean galtzen dela gaixotasun arruntagatiko egun gehien, eta ondoren, 10.ean (Eraikuntza). Adierazi behar da, halaber, beste talde batzuetako enpresa bakun batzuetan, gaixotasun arruntagatik ABeko jardunaldi gehiago galtzen direla.

ENPRESA JARDUERA	Kop.	Batez bestekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa-industriak. Ehungintza.	2	6,0	3,6	8,3
Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak	-	-	-	-
Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa	6	7,3	0,2	14,7
Metalurgia	10	7,0	0,0	9,2
Metalezko produktuen eta makinaren ekoizpena	9	7,9	0,3	15,8
Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena	5	6,1	3,3	10,4
Garraio-materialaren ekoizpena. Bestelakoak	3	2,8	2,2	5,1
Ur bil./ban. E. elektrikoaren ekoi/ban.	7	0,3	0,0	2,5
Eraikuntza	1	11,4	11,4	11,4
Merkataritza. Ostalaritza	2	8,4	6,1	10,6
Garraioa	6	7,9	4,7	15,0
Alokairuak. Informatika. Herri Ad.Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza.Bestelako gizarte-jarduerak.	10	10,4	4,4	32,0
Osasun-jarduerak	3	17,9	10,2	25,4
Orotara	64	7,5	0,0	32,0

XVI. taula: Gaixotasun arrunt bakoitzeko bajaren batezbesteko iraupenaren indizea, enpresa-jardueraren arabera. (BBI: gaixotasun arruntagatik galdutako lanegunak zati gaixotasun-baja kop.).

Gaixotasun arruntengatiko larritasun-indizerik baxuena 9. taldeari (Ur bil./ban. E. E. elektrikoaren ekoiz./ban.).

Azpitarratu behar da, batez bestekoari jarraitzen badiogu, aurreko urteetan bezalaxe, gaixotasun arruntek eragindako bajen maiztasuna handiagoa dela Araban, beste bi lurraldeetan baino. Hala ere, batez besteko iraupen-indizerik txikiena Arabakoa da eta larritasun-indize txikiena, ordea, Gipuzkoakoa (I. Eranskina – V., VI. eta VII. taulak).

3. LAN-BALDINTZEI BURUZKO FITXEN AZTERKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Osasun Unitateek bidalitako Lan Baldintzen Fitxa (aurrerantzean LBF) oinarri hartuta, zeina Osasun Sailak 1992ko abenduaren 9an emandako Aginduaren arabekoak baita, orain OSALANek 2006 urteari dagokion Memoria hau argitaratu du. Lan-ingurunean langileak arrisku-faktoreen eraginpean zein mailatan jartzen diren jakitea da xedea, eta aldi horretan izandako aldaketak ezagutzea ere bai.

2. jarduera-taldeko (Erauzketa-industriak. Ehungintza. Elikagaigintza) enpresa baten informazioa jaso da atal honetan, eta horrexegatik ez da Txostenean jaso. Dena den, Lan Baldintzen Fitxan barne hartu denez, horren azterketa oso-oso da.



3.1. Materiala eta metodoak

Egindako azterketan 66 LBF aztertu dira, guztiak 2006. urteari dagozkiola.

LBF horretan barne hartutako elementu guztiak aintzat hartuta, Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN)ri dagozkion datuak grabatu dira, plantilla, eragile bakoitzaren eraginpean jarritako langileen kopurua, lan-baldintzak, baita prebenitzeko eta babesteko neurriak baliatzen dituzten langileen kopurua ere. Elementu horietako edozeini dagokionez, Oinarrizko Osasun Unitateak bidalitako zenbakizko datua sartu da. Hutsik utzitako kasuetan (Oinarrizko Osasun Unitateak bete gabeko datua), "0" balio gisa kontatu da, hau da, ez dago eraginpeko langilerik edo ez dago eragile horri edo horiei dagokienez babestutako langilerik.

Enpresek burututako ekonomi jarduera desberdinak EJSNek zehazten dituzte, abenduaren 18ko 1.560/92 Errege Dekretuaren arabera, dekretu horrek xedatzen baitu indarrean dagoen Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala.

X. taulan 14 taldetan banatzen dira EAEko enpresen jarduerak, eta euren dagozkien EJSNak ere bai. Aurreko urteetan arriskuei buruzko azterketa honetan bazter utzi dugu 1. jarduera, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza alegia, izan ere, sektore honetan ez dago eraturako Oinarrizko Osasun Unitaterik.

Egindako azterketa deskriptiboa da, eta lan-arriskuaren faktore bakoitzaren maiztasun absolutuen eta erlatiboen emaitzak erakusten dira, enpresaren ekonomi jardueraren motaren arabera (EJSN).

Zarata sakonago aztertu da, LBFak xehetasun handiagoz azaltzen baitu eragilearekiko eraginpean jarritako maila. Zaratatik babesteko neurrien erabilera-maiztasuna zehaztu zen, zarata-mailaren eta enpresa-jardueraren motaren arabera, baldintzapetu gabeko erregresio logistiko bidezko azterketa baliatuz. Ikerketa hau egiteko, 3 hein ezarri ziren: >80-84 dB(A); 85-89 dB(A), eta 90 dB(A)tik gorako balioak. Babesteko neurrien erabilera honela kodetu zen: "ez" = 0 "bai" = 1.

3.2. Emaitzak

EAE osoaren eremuan (XVIII. taula) 2006. urtean 59 LBF aztertu ziren; 11 enpresa Arabakoak ziren, guztira 11.314 langile zituztela, 5 Gipuzkoakoak, 1.487 langile zituztela, eta 43 enpresa Bizkaikoak, 15.669 langile zituztela, hurrenez hurren.

Aurtengoan aztertu diren langileen guztizko kopurua 28.770eko da, 2005. urtean baino 2.572 langile gutxiago.

LBF	EAE	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Enpresak	59	43	5	11
Langileak	28.770	15.969	1.487	11.314

XVIII. taula: LBF Enpresa kopurua eta langile kopurua Lurralde Historikoen arabera.

XIX. taulan enpresaren jardueraren arabera eta Lurralde Historikoaren arabera sailkatzen dira LBFak.

Aztertutako fitxak batez ere 4. (Ind. kimikoa, plastikoak eta petrolio-errefinaketa) eta 5. (Metalurgia) eta 8. taldeko (Garraio-materialaren ekoizpena. Beste batzuk) enpresei dagozkie. Sektore gutxitua 2. jarduerataldeari (Erauzketa-industriak. Ehungintza) eta 3. jarduerataldeari (Egurgintza. Papergintza. Arte Grafikoak) eta 10.ari (Eraikuntza) dagokie.



Datuak Lurralde Historikoen arabera alderatzen baditugu, Arabako langileen kopururik handiena 4. taldean (Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa) dago, guztira 3.858 langile dituela, eta ondoren 8.a (Garraio-materialaren ekoizpena. Beste batzuk), 3.565 langilerekin. Beste muturrean 2. taldea (Erauzketa-industriak. Ehungintza. Elikagaigintza), 3.a (Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak), 9.a, 10.a, 12.a eta 13.a (Eraikuntza; Garraioak; eta Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak) azaltzen dira, batek ere langilerik ez dutela.

Bizkaian, langile-kopuru handiena 12. taldeari (Garraioa) dagokio, 2.867 langilerekin, eta 13. sektoreari (Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak), 1.892 langilerekin. Jarraian, eta gertu-gertu, 4. taldea (Ind. kimikoa, plastikoak eta petrolio-errefinaketa eta Metalurgia) dago, 1.844 langilerekin, eta 6.a (Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena), 1.760ekin. Azpimarratu behar da, gainera, 2. (Erauzketa-industriak. Ehungintza. Elikagaigintza) eta 3. (Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak) taldeetan ez dutela ordezkaturiko langilerik.

Gipuzkoan, Material elekt. eta elektronikoen ekoizpena eta Metalurgia biltzen dituen sektoreak hartzen ditu, 2006. urtean, langile gehien, hots, 778 eta 436 langile, hurrenez hurren. Langile gutxien dituzten taldeak, ordea, honako hauek dira: 2.a (Erauzketa-industriak. Ehungintza. Elikagaigintza), 3 (Egurgintza. Papergintza. Arte grafikoak), 4.a (Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa), 6.a (Metalezko produktuen eta makinen ekoizpena), 8.a (Garraio-materialaren ekoizpena. Beste batzuk), 9.a (Ur bil./ban. E elektrikoaren ekoi/ban.), 10.a (Eraikuntza), 11.a (Merkataritza. Ostalaritza), 12.a (Garraioa), y 13 (Alokairuak. Informatika. Herri Ad.. Bestelako zerbitzuak. Finantza-bitartekotza. Bestelako gizarte-jarduerak), honako hauek ez baitituzte langilerik.

JARDUERA	EAE		Bizkaia		Gipuzkoa		Araba	
	Empr.	Lg. Kop.	Empr.	Lg. Kop.	Empr.	Lg. Kop.	Empr.	Lg. Kop.
2	0	0	0	0	0	0	0	0
3	0	0	0	0	0	0	0	0
4	8	5.702	6	1.844	0	0	2	3.858
5	7	3.459	3	1.462	1	436	3	1.561
6	13	1.969	12	1.760	0	0	1	209
7	9	2.453	5	1.464	3	778	1	211
8	5	4.657	3	1.092	0	0	2	3.565
9	4	1.750	3	1.477	1	273	0	0
10	1	161	1	161	0	0	0	0
11	1	1.152	1	1.152	0	0	0	0
12	4	2.867	4	2.867	0	0	0	0
13	5	2.020	4	1.892	0	0	1	128
14	2	2.580	1	798	0	0	1	1.782
Orotara	59	28.770	43	15.969	5	1.487	11	11.314

XIX. taula: LBF. Enpresa kopurua eta langile kopurua ekonomi jardura motaren eta Lurralde Historikoen arabera sailkatua.

3.3. Ingurune fisikoaren faktoreak

Dagokion arrisku fisikoaren eraginpean daudela onartzen duten enpresen kopurua eta langileen kopurua erakusten dira XX. taulan. Bere eraginpean langile gehien dituen eragilea gorputzaren bibrazioena da, ondoren, erradiazio ez ionizatzaileena, lehenengoek eraginpean langile batzuk gehiago dituztela.



Aldiz, argi gutxiegi eta azalera gutxiegi izatearen eraginpeko langileak dira faktore horien eraginpeko kopuru txikiena dutenak.

INGURUNE FISIKOAREN FAKTOREAK	ENPRESAK	ERAGINPEKOEN KOP.
Azalera gutxiegi	5	170
Argi gutxiegi	4	113
Estres termikoa	8	338
Besoaren eta eskuaren bibrazioak	13	536
Gorputzaren bibrazioak	8	413
Erradiazio ez ionizatzaileak	14	520
Erradiazio ionizatzaileak	7	120

XX. taula: Arrisku fisikoaren hainbat faktoreren eraginpean dauden enpresa kopurua eta langile kopurua.

XXI. taulan langileak jarduera-taldearen arabera banatzen dira, eragile fisiko desberdinen eraginpeko enpresa-kopurua eta langile-kopurua emateaz gainera.

4.a (Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa) da behar beste azaleraren arrisku-faktorearen eraginpean daukan ekonomia-jarduera taldea, faktore horren eraginpean 72 langile baititu. Datu hau bat dator iazko memorian azaltzen denarekin.

ARRISKU FAKTOREA	ENPRESEN EKONOMI JARDUERA TALDEA														
	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	Orot ara E.	Orot ara T.
Azalera gutxiegi	0	0	72	0	19	0	20	0	0	0	54	5	0	5	170
Argi gutxiegi	0	0	0	56	10	23	0	0	0	0	24	0	0	4	113
Estres termikoa	0	0	160	174	0	0	4	0	0	0	0	0	0	8	338
Besoaren eta eskuaren bibrazioak	0	0	180	42	54	9	208	0	18	0	13	12	0	13	536
Besoaren eta eskuaren bibrazioak	0	0	179	99	0	53	82	0	0	0	0	0	0	8	413
Erradiazio ez ionizatzaileak	0	0	0	215	4	162	122	0	0	0	0	5	12	14	520
Radiaciones ionizantes	0	0	31	53	12	0	24	0	0	0	0	0	0	7	120

XXI. taula: Hainbat eragile fisikoaren eraginpean dauden langileen kopurua, enpresaren jardueraren eta langile kopuru osoaren arabera.



Argi gutxiegi izateak eta estres termikoak eragindako arrisku-faktoreari dagokionez, 5. taldea (Metalurgia) nabarmentzen da, eraginpean, hurrenez hurren, 56 eta 174 baitaude. Besoaren eta eskuaren bibrazioek eragindakoen artean, ordea, 8. taldea (Garraio-materialaren ekoizpena. Beste batzuk) da nabarmenena, eraginpean, iazkoan bezalaxe, 208 daudelako.

Gorputz osoaren bibrazioen eraginpean dauden langile gehien dituen jarduera-taldea, berriz, 4.a (Ind. kimikoa, plastik eta petrolio-errefinaketa), eraginpean 179 langile baitaude. Nabarmendu behar da, aurtengoan, 82 langile gutxiago daudela eraginpean.

